

Topalekua

84 zk. 2014ko otsaila

febrero 2014 - n.º 84

1. orr.: Gizarte-kontseiluak UPV/EHU-ko 2014ko aurrekontua onartu du, aurrekontua 395,38 milioi eurokoa da, 2013koa baino 2,4 milioi handiagoa

2. orr.: Enpresen eta hezkuntza-sektorearen arteko lankidetzak laneratzea hobetuko luke /

Gizarte-kontseiluak eta Ministerioak aztertuko dute tituludunen enplegarritasuna

3. orr.: Tituludunek %28 aukera gehiago dute lan bat aurkitzeko

4. orr.: Hamabost proposamen, hazkundea bultzatzeko eta enplegua sortzeko


GIZARTE-KONTSEILUAK UPV/EHU-ko 2014ko AURREKONTUA ONARTU DU, AURREKONTUA 395,38 MILIOI EUROKOA DA, 2013koa BAINO 2,4 MILIOI HANDIAGOA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura Bilbon bildu zen urtarrilaren 22an, eta Universidad del EAE/Euskal Herriko Unibertsitatearen 2014ko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen. Aurrekontua 395,38 milioi eurokoa da, beraz, aurreko ekitaldiko 392,96 milioi euroko aurrekontuaren aldean, % 0,62ko gehikuntza dakar (azken lau urteetan lehena, hain zuzen ere).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak aipatutako zenbaketak onartu zituen, honako

hauek aztertu ondoren: batetik, azaroaren 19an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen Aurrekontu Proiektua eta, bestetik, Gizarte Kontseiluaren Ekonomia eta Finantza Batzordeak Proiektu horri buruz igorri zuen txostena. Aipatutako txosten horretan Batzordeak berritasun nagusiak eta kapituluaren programen eta gastu-unitateen araberako finantza-azterketa zehatza jaso zituen, bai eta zenbait alderdi hobetzeko gomendio batzuk ere.

AURREKONTUA EBOLUZIOA 2004-2014



Kapituluen araberako azterketan jasota dago UPV/EHUK honela antolatuko dituela dirupartidak:

- Langileen gastuetarako (I. Kapituluak) 290,48 milioi euro: % 73,46 guztira, eta 2013an baino % 0,76 gehiago.
- Gastu arruntetarako (II. Kapituluak) 76,72 milioi euro: % 19,4 guztira, eta 2013an baino % 0,65 gehiago.

ENPRESEN ETA HEZKUNTZA-SEKTOREAREN ARTEKO LANKIDETZAK LANERATZEA HOBETUKO LUKE

Gazteen langabezia %55etik gorakoa den herrialde batean ezinbestekoa da enpresen eta hezkuntza-sektorearen arteko lankidetzak sustatzea, gazteek lanerako bidea egin dezaten. Hori azpimarratu da McKinsey&Company aholkularitza-enpresak egin duen azterlan batean. Azterlan horrek oinarri hartu ditu Europako zortzi herrialdeetako gazteei, enpresei eta prestakuntza-guneei egindako 8.000 galdera-sorta.

Laneratzeko bidea zailtzen duten oztopoak, txostenen arabera, hauek dira:

1. **Unibertsitatera joateko arazoak:** gazteen %29k esan dute ezin dutela goi-mailako hezkuntzarik ikasi, haren kostu orokorrarengatik, eta ez matrikulen prezioarengatik soilik.
2. **Lanbide-heziketaren estigma** heziketa hori oraindik ere maila "txikiago"ko aukeratzat hartzen delako.
3. **Ezagutzen eta gaitasunen defizita.** "Gazteak ez ari dira enpresek behar dituzten gaitasunak ikasten", esan du Xavier Prats-ek, Europar Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritzako zuzendariordeak, nahiz eta enpresari guztiek gaitasun horiei oso garrantzitsu iritzi. Errua ez da soilik erakunde akademikoena. Txostenak diotenen arabera, enpresariak sarriago jarri beharko lukete harremanetan ikastegiekin, zer behar duten haiei adierazteko.
4. **ETEek ez dute graduatu berrik nahi:** hamar langiletik beherako enpresen %70ek eskarmentudun langileak kontratatzea nahiago dute.
5. **Enplegua aurkitzeko laguntza-eza:** inkestaren %73k uste du ez dutela behar besteko informaziorik jaso, lana non edo nola aurkitu jakiteko. Azterlanaren arabera, ikasleei laneratzeko

bideak, lanari buruzko ikuspegiak eta soldatak azalduko balitzaizkie, graduatu ondorengo lehenengo sei hilabeteetako langabeziaren %4 murriztuko litzateke.

6. **Praktika-eza:** unibertsitate-ikasleen %54k eta lanbide-heziketa ikasten duten %66k baino ez dute praktikarik egiten prestakuntza-etapan. Hala da, nahiz eta "praktikak -txostenak dio- langabeziaren tasa askoz txikiei lotuta dauden".

Gomendioak

Txostenean zenbait neurri proposatu dira: lana eta ikasketak bateratzeko aukera ematen duten moduluak eskaintzea; interes txikiko maileguak ematea lanean ari direnei, prestakuntza hobetu nahi baldin badute; ikasle gazteagoekin tutoretza-lanen bitartez berrordainketa egiteko formulak; edo ikasketak enpresen bidez finantzatzea.

Txostenak enpresariak gomendatu dizkie irakasgaiak hezitzaileekin batera diseinatzeko, eta praktikak egiteko postu gehiago eskaintzeko. Bestalde, ikastegiei gomendatu die enpresekin konexio handiagoa izan dezaten, hezkuntza enpresen eskariekin bat datorren ziurtatu aldera.

Azkenik, gobernuei aholkatu die honelako sistema ezartzeko: sistema integratzailea, ahaleginak bideratzen dituen, eta praktika egokiak partekatzen laguntzen duena. Europar Batasunari haxe gomendatu dio: lan-merkatuari buruzko plataforma bat sor dezan, bertan sektore eta lurralde bakoitzari buruzko datu garrantzitsuenak eta enplegu-sistema nazionalen garatutako praktika egokiak biltzeko. Plataforma horren helburuak, batetik, mugikortasuna sustatzea, eta, bestetik, tituluak baliozkotzen lagunduko duten irizpideak eta ikasketak bateratzea izango lirateke.

GIZARTE-KONTSEILUEK ETA MINISTERIOAK AZTERTUKO DUTE TITULUDUNEN ENPLEGAGARRITASUNA

Espainiako Estatuko Unibertsitateen Gizarte Kontseiluen Konferentziak eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak hitzarmen bat sinatu dute, unibertsitate-tituludunek enplegua lortzeko dituzten aukerak, gaitasunak, arazoak, etab., aztertzeko. Horretarako, unibertsitateetan eskaintzen diren titulazio guztien enplegarritasun-maila aztertuko dute. Helburua erabakiak hartzeko prozesuak ondo orientatzea da, bai administrazioei dagokienez, bai ikasleei dagokienez.

Sinatzaileek uste dute unibertsitate-sistemak duen erroka handienetarikoa bat tituludunen langabeziari aurre egitea dela. Beraz, titulazioen mapa berriro zehazteko, beharrezkoa da titulazio bakoitzak eskaintzen dituen laneratzeko aukerak zehatz-mehatz ezagutzea. Horrek desorekak zehazteko aukera ere ematen du: esaterako, zeintzuk diren lan-eskari txikia duten titulazioak, edo zein lan-eskaintza gorakorretan falta diren tituludun langile gaituak. Era berean, ezinbestekoa da informazio hori ikasleei jakinaraztea, egin nahi duten titulazioa aukeratzeko kontuan izan ahal dezaten. Horrez gain, azterlanak aditzera emango du tituludunen laneratzeari eta lan-merkatuan jarraitzeari buruzko informazioa.

Akordioaren arabera, Hezkuntza Ministerioak egitura eta informazioa erabilgarri jarriko ditu, eta Konferentziak beharrezko giza baliabideak emango ditu. Hori izango da, hain zuzen, Konferentziak datorren urtean garatuko dituen jardueretako bat. Halaxe adierazi zion Joaquín Moya-Angeler lehendakariak Batzar Nagusiari *La Reforma de la Universidad Española* izenburupean antolatu ziren jardunaldietan.

Euskadiko Lan-txertaketaren Behatokia


Ildo horretatik gogoratu behar da UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak 1999an "Unibertsitate Tituludunen Laneratzeari buruzko Inkesta" sortzea bultzatu zuela, behatoki iraunkor bat izan zedin. Harrezkero, behatokiak urtero jakinarazten ditu talde horren laneratzetasak eta egiten dituzten lanen kalitatea eta egokitasuna. Universidad del EAE/Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte Kontseiluak eta Lanbide sinatu duten hitzarmen baten bitartez egiten da inkesta hori. Inkestaren emaitzak oso baliotsuak dira, Euskal Autonomia Erki-degoko goi-irakaskuntzari eragiten dioten erabakiak hartzeko.

TITULUDUNEK %28 AUKERA GEHIAGO DUTE LAN BAT AURKITZEKO


Lehen mailako ikasketak dituen pertsona batek baino ia %28 aukera gehiago du goi-mailako tituludun batek, lana aurkitzeko. Hala dio *Capital Humano, Cambio educativo y productivo en España 1964-2013* txostenak, Fundación Bancaja-Ivie-k egin duenak. Txosten berean jaso da "ekonomia-krisiaren ondorioek gutxiago eragin dietela goi-mailako ikasketak dituzten biztanleei". Era berean, txostenak erakutsi du 2013an Euskal Autonomia Erkidegoa zela maila ertaineko edo maila handiko ikasketak zituzten biztanleen ehuneko handiena zuena.

Langabezia-tasa, amaitutako ikasketen mailen arabera sailkatuta. Autonomia-erkidegoak. 2007 eta 2013*


a) Gehienez ere derrigorrezko ikasketak egin dituzten biztanleak




b) Bigarren mailako ikasketak, derrigorrezkoen ondokoak, egin dituzten biztanleak



c) Goi-mailako ikasketak egin dituzten biztanleak



d) Biztanleak guztira



2013 ■ 2007 ●


* II. hiruhilekoa Iturria: Fundación Bancaja-Ivie

Prestakuntzak eragindako aldeak, txostenak adierazi dituenak, lan-merkatuan erakusten dira. Horren harira, langabezia-tasak 20 punturainoko aldeak eragin ditzake autonomia-erkidego batetik bestera: adibidez, 2013ko bigarren hiruhilekoan, EAEko langabezia-tasa %15,5 izan zen, eta Andaluzian, ordea, aldi horretako langabezia-tasa %35,8 izan zen. **Aztertu den denbora-tartean**, EAEko lan-merkatuaren bilakaera ikaragarria izan da; horregatik, 1994ko krisian, langabezia-tasaren araberrako sailkapenean EAE seigarren lekuan baze-

Giza kapitalaren balioa biztanle landun bakoitzeko.

Autonomia-erkidegoak.

1997, 2007 eta 2013* (langile baliokideak)



* II. hiruhilekoa Iturria: Fundación Bancaja-Ivie

goen ere, 2013ko langabezia-tasa txikiena duen Estatuko erkidegoa da.

Sektoreei dagokienez, zerbitzu-sektoreak baino pisu txikiagoa dute nekazaritzak, energiak eta industriak. Izan ere, zerbitzu-sektorean landunen kopuruak %240 egin du gora aldi horretan. Atal berean, azterlanak erakutsi du eraikuntzak %106ko hazkunde izan zuela 2007. urtea arte. Harrezkero, 1.400.000 lanpostu suntsitu dira, eta galera horrek 60ko hamarkadaren erdi alderako mailetara eraman du sektorea. Gaur egun, zerbitzuek enpleguaren %75 baino gehiago osatzen dute; eta nekazaritzak, ordea, %5 baino ez: prestakuntzak bultzatu du erabateko eraldaketa hori.

Giza kapitala

Hezkuntza-mailen hobekuntzarekin batera, Fundación Bancaja-Ivie-ren txostenak giza kapitalari buruzko adierazle erlatiboak ematen ditu. Adierazle horiek erakusten dute lan-merkatuan zer-nolako balorazioa egiten den langile-mota bakoitzeko, hezkuntza-mailaren eta eskarmentuaren arabera. Hori horrela, EAEn, Nafarroan eta Madrilgo Erkidegoan, goi-mailako landun bakoitzak *per capita* duen giza kapitalaren balioak oinarritzko prestakuntza duten hiru langilerena gainditzen du.

Giza kapitalaren *per capita* balioaren adierazleak erakusten ditu: hainbat erkidegoren egoeraren laburpena eta langileen giza kapitaleko zuzkiduren hobekuntza-prozesu orokorra. 2013an, autonomia-erkidego guztietan lortu den batez besteko zuzkidurak 1977an nagusi zen erkidegoaren maila gainditzen du. Erkidego guztiek onera egin dute, eta duela 36 urte Madrilgo Erkidegoak zituen erregistroak gainditzen dituzte; horrez gain, guztiek egin dute aurrera duela gutxi izan dugun krisialdian. Sailkapenaren gainerako datuak eta 2013ko erlatibozko posizioak, batetik, eta 1977koak, bestetik, oso antzekoak dira.

HAMABOST PROPOSAMEN, HAZKUNDEA BULTZATZEKO ETA ENPLEGUA SORTZEKO

BBVA-Ivie Fundazioaren arabera, krisia munduko ekonomiaren bilakaera-prozesuaren barnean dago. Prozesu horrek desoreka handiak eragin ditu Europan eta Espainian, eta sortu diren honako bi arazo larri hauek konponbidea behar dute: batetik, langabezia masiboa gutxiagotzea, eta, bestetik, pobrezia-aren eta bazterketaren arriskua txikiagotzea. Garapen iraunkorreko etapa bat hasiko bada, beharrezkoa izango da aktibo ukiezinetan oinarritutako lehiakortasuna bultzatzea (prestakuntza enpresetan eskaintzea, informazio digitalizatua, I+G+b) eta enplegua sortzen duen hazkunde-mota bultzatzea. Hazkunde horrek aurre egin beharko die epe labur eta ertainera zehaztu diren erronkei. Erronka horiek **Crecimiento y Competitividad 2013** (Hazkunde eta lehiakortasuna, 2013) txostenean adierazita daude.

Ekonomiaren erreperazioa lortzeko beharrezkoak diren erronkek eraldaketa oso sakonak eskatzen dituzte: enpresetan, hezkuntzan eta sektore publikoan. Besteak beste, azterlanak azpimarratzen ditu kanpoko inbertsioa erakarri eta zerbitzu publikoak eraginkorraro bihurtu behar.

Epe laburrera zehaztutako erronken artean, honako hauek ditugu: enplegua sortzea, kontsumoa berreskuratzeko aldera; eta bizitegi- eta bizitegi ez diren higiezin aktiboetan harrapatuta dagoen gehiegizko ahalmena murriztea.

Proposamenak

Erronka horiei erantzuna emateko, txostenean hamabost proposamen bildu dira:

1. Aktibo ukiezinetak inbertsioa bultzatzea, honako hauek zabalduz: informazio digitalizatua, I+G+b, produktuen diseinua, merkatuen ikerketa, enpresa-antolaketa eta prestakuntza.
2. Enpresariei eta langile autonomoei etengabeko prestakuntza eskaintzea eta kudeaketa profesionalizatzea, zuzendariak bizitza profesional osoan prestakuntza jaso dezaten.
3. Tituludunei enpresa-prestakuntza ematea, tituludunak zuzendaritza-postuak betetzeko kontratatzea eta enpresa-bokazioak sustatzea.
4. Esportazioa eta nazioartekotasuna bultzatzea, prestakuntza-programen bitartez, eta herrialde

garapenetan dauden Espainiako Estatuko unibertsitate-ikasleen kopuru gero eta handiagoaz baliatuta.

5. Atzerriko inbertsio zuzena erakartzea, giza baliabideen kostuei eta eskaintzari lotuta ditugun abantailen hedapenaren bitartez.
6. Talentua berreskuratzeko eta gararazteko, teknologia-maila ertaineko eta handiko jardueren bidez, eta titulazio egokia duten pertsonen zuzendari-, teknikari- eta espezializazio handiko postuak eskaintzea.
7. I+G+b sustatzea, epe luzerako ikuspegia eta irizpide selektiboak erabilita: hezitzaileak prestatuz, jakinduria sortuz eta emaitzen transferentzia bultzatuz.
8. Informazioa duten agente guztien barneko eta kanpoko malgutasuna bultzatzea eta langile guztien segurtasuna bermatzea, enpresen egokitasunaren gaitasuna hobea izan dadin.
9. Giza kapitala, azpiegiturak eta aktibo ukiezinak lehenestea, gastu publikoa egiterakoan.
10. Gai publikoak ondo gobernatzea, haiei buruzko informazioa ematea eta gardentasuna sustatzea, politika publikoen praktikak areagotuta.
11. Enplegu-prestakuntza jasotzeko politika aktiboak ezartzea, aukerei buruzko informazioa ematea, bitartekotzaren kudeaketa hobetzea, lanaldi partzialeko enplegua sustatzea eta ekintzaileen ekimenak bultzatzea, prestakuntza-laguntza eskaintza.
12. Herritarrek langabeen prestakuntzarekiko konpromisoa har dezaten lortzea, hezkuntza-baliabideak, enpresen baliabideak eta hedabideen baliabideak erabilita.
13. Zerga-sistema eraldatzea, zergak errazteko eta koordinatzeko, baita iruzurrari aurre egiteko ere.
14. Zerbitzu publikoak erabiltzeko tasa-politikak ezartzea, erantzunkidetasuna bultzatzeko, baina oinarritutako zerbitzu publikoen tasak ordaindu ezin dituzten taldeak baztertu gabe.
15. Sektore publikoaren finantzaketa-iraunkortasuna bermatzea, diru-sarrerak eta gastu-arauak eraldatuta.

(1. orritik dator)

- Inbertsioetarako 21,63 milioi euro (VI. Kapitulua): aurrekontuaren % 5,47, 2013an baino % 5,98 gutxiago.
- Zorra amortizatzeko partida (IX. Kapitulua) 1,18 milioikoa izatetik 2,46 milioikoa izatera aldatu da; beraz, % 108,38 handiagotu da.
- Gainerakoa, aurrekontu osoaren % 1, honako hauek erabiliko da: finantza-gastuetan, transferentzietan, diru-laguntzetan eta Gizarte Kontseiluan. Gizarte Kontseiluaren zuzkidura 215.402 eurokoa da, 2013ko bezalakoa, eta hori unibertsitate-aurrekontu osoaren % 0,05 da.

Beste erabaki batzuk

Bestalde, Osoko Bilkurak honako hauek ere onartu zituen bilera berean:

- Universidad del EAE/Euskal Herriko Unibertsitateak Novia Salcedo Fundazioko patronatuan parte hartzea.
- Barakaldoko Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren eraikin zaharra unibertsitate-zerbitzu publikotik kentzea, eta herri horretako Udaletxeari eraikina itzultzea.
- Tasa akademikoak kredituko 1,50 eurokoak izan daitezen honako ikasketa osagarri honetan: "Ikerketa praktiketarako programa aurreratua (Nazioarteko Ikasketak), 6. aldia".

Azkenik, Osoko Bilkurak aurrekontuen aldaketa batzuk onartu zituen, bai eta irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarri buruzko ebazpenak betearazteko akordio batzuk ere.